



TXILETARRAK, BERRIZTAGARRIEN INGURUAN IKASTEN USURBILEN

Aurten ere Txileko 29 ikasle etorri dira Usurbilgo Lanbide Eskolara eguzki energia termikoaren, eguzki energia fotoboltaikoaren eta energia eolikoaren inguruan ikastera.

Ikasitakoak praktikan jarri dituzte eskolan bertan, bertako eraikin baten energia elektrikoa sortuko duen mikrosare bat garatuz eta muntatuz.

Ostiralean, aurkezpen ofizial batean, ikasketen ziurtagiriak entregatu zizkien Patxi Vaquerizo Usurbilgo Lanbide Eskolako zuzendariak, Jesus Mari Gomez ZubiGune Fundazioko zuzendariak, Iñaki Mujika Tknikako zuzendariak, Pablo Barrios Lasarteko alkateak eta Mertxe Aizpurua Usurbilgo alkateak, eta mikrosarea inauguratu zuten.

Bestalde, joan den asteartean Euskadira etorritako txiletar guztiak hartu zituen lehen-dakariak.



**USURBILGO
LANBIDE
ESKOLA**

IEFPS USURBIL GLHBI